

ARRAZAKERIA BERRIAREN KAZETARITZA-GOGOETABIDEAK IKUSKIZUN-KIROLEAN

Txosten honek, Kirolaz, Hedabideez eta Minorien Integrazioaz, Kirolaren Kontseilu Nagusiaren laguntzarekin 2009az geroztik Gipuzkoako SOS Arrazakeria egiten ari den ikerketen emaitzen zati bat jasotzen du.

EGILEAK: Raul Martínez*, Juan Aldaz, Anaitze Agirre*** eta Silvana Luciani*****

LAGUNTZAILEAK: Itxasne Sagarzazu**, Maitane Arnoso*** eta Peio Marin Aierbe*****

* Universitat de Vic

**Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

***Gipuzkoako SOS Arrazakeria

****Olinpiar Ikerketa Zentroa – Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa.

Txosten honek, SOS Arrazakeriaren Aniztasunaren Behatokiak, Kirolaren Kontseilu Nagusiaren laguntzarekin, 2008az geroztik urtero masa hedabideen eta ikuskizun-kirolaren artean dagoen harremana ikertzeko abian duen ikerketa-ekintza proiektuaren emaitza nagusiak aurkezten ditu.

Urte hauetan metatu dugun esperientziak ahalbidetu digu minoria etnikoen aurkezpenaren tratamendua ikertu ahal izatea, sentiberatzeen nondik-norakoak eta Olinpiar Jokoa, nazioarteko futbol txapelketa nagusiak edota Espainiako futbol liga profesionala bezalako lehen mailako kirol ekitaldi handien jarraipen mediatikoan sor daitezkeen diskriminazio edo arrazakeria prozesu eta agerpenak, eta bide batez alor honetako kazetaritzarako praktika egokiak proposatu ahal izatea, ikerketaren emaitzak horrelako zerbaite eskatuko balu.

Proiektu honen abiapuntua da kirolak integrazio tresna izateko lukeen balizko betekizunaz ziurtasun zientifiko esanguratsuen gabezia, Heinemann (2002)-k dioen bezala eta geroago Coalter (2009)-k berresten duen moduan, eta aldi berean onartzea kirolak baduela ahalmena ingurumena errazteko *“etorkinak eta jatorri atzerritarreko pertsonak gizartean integratzeko, eta kulturarteko elkarrizketaren lagungarri izateko, kirolak kide izate eta parte hartzearen sentipen partekatua suspertzen baitu eta, horrela, gainera, lanabes garrantzitsua izan baitaiteke etorkinen integrazioarako”* (Europar Erkidegoen Batzordea, 2007:7).

Hedabideak bezalaxe, balioen –onuragarrien zein ezkorren- transmisiorako tresna indartsua da kirola, baita kirol-indarkeriaren fenomenoari aurre egiteko lanabesa ere, 19/2007 Legean esaten den moduan: *“maiz oihartzun ikusgarria aurkitzen dute hedabideetan non, batzuetan, etengabe errepikatzen baitira indarkeriazko gertakariak”*.

Ezbairik gabekoa da kirol ikuskizunek betekizun berezia dutela gure gizartean masa-fenomeno legez eta, orain arte behintzat, gehienetan kirol ikuskizunek balio izan dutela, eta balio dutela, hedabideen objektu (eta ez subjektu) izateko salerosketa interesen harira; baina, bide batez, esan beharrekoa da kasu asko eta askotan ikuskizun-kirola politika egiteko erabiltzen dela, bai Estatu edota Nazio baten ikurrak goresteko, eta baita kirolean bertan ematen den bortizkeria, arrazakeria eta xenofobiaren aurkako borroka ekintzak sustatzeko ere.

2008 urteaz geroztik egindako ikerketen emaitza nagusiak laburbiltzen ditu jarraian aurkezten dugun txostenak. Beraz, kirolak, hedabideek eta integrazio prozesuek osatzen duten hirutasunari buruzko esparru teorikoa hitz gutxitan aurkezteaz gain (1. *epigrafe*), gure ikerketa ildoaren ezaugarri metodologiko nagusiak zehazten ditugu (2. *epigrafe*), eta emaitzen berri ematen dugu (3. *epigrafe*). Azkenik, amaitzeko (4. *epigrafe*) ondorio nagusiak argitaratzen ditugu, hirutasun honetan parte hartzen duten eragileen

arteko erantzunkidetasuna ardatz delarik, eta aipamen berezia egiten dugu hedabideei dagokien betekizunaren inguruan.

KIROLAK, HEDABIDEAK ETA INTEGRAZIOA, AUZITAN DAGOEN HIRUTASUNA

Zalantzarik gabe, hedabideek errealitatea irudikatu eta berreraiki egiten dute. Geure ezagupen zuzena iritsi ezin deneko lekuetan, hedabideak dira geure leihoak, mundua ezagutzeko ditugun bitartekoak. Bide batez, iritzi sortzaile ukaezinak dira eta tresna eraginkorrak dira estereotipoak eta topikoak desegin, sortu, barreiatu edota indartzeko, haien erabilpena edo moldakuntza dela medio.

Halaber, ukaezina da balioak, onuragarriak zein ezkorrak, transmititzeko tresna ahaltsua dela kirola, bai jarduera pertsonal hutsa denean, osasunaren hobekuntzaren sustapenetako bitarteko edo elkarrizketa eta lagunarte girorako abagune izateko... eta baita arreta mediatiko handia bereganatzen duen ikuskizuna eta aisialdirako alternatiba nagusietakoa bihurtzen denean ere.

Beste era batera esanda, Dunning (2003:11)-ren hitzetan:

“No es necesario demostrar con hechos y cifras que el deporte es importante. Basta ofrecer unos cuantos datos, que no podrán negar las personas indiferentes al deporte ni las que lo aborrecen. Pensemos, por ejemplo, en la atención que los medios de comunicación prestan regularmente al deporte: la cantidad de dinero –público y privado- que se invierte en deporte; el grado de dependencia en la publicidad del negocio del deporte; la mayor implicación del estado en el deporte por razones tan diversas como el deseo de combatir la violencia de los espectadores, mejorar la salud pública o aumentar el prestigio nacional; el número de personas que con regularidad practican deportes o asisten como espectadores, por no hablar de los que dependen directa o indirectamente de él; el hecho de que el deporte funciona como algo afín a una coíné que no sólo permite estrechar lazos entre amigos, sino también romper el hielo entre extraños (esto, por supuesto, es sobre todo un fenómeno masculino, aunque vaya cambiando lentamente); el abundante empleo de metáforas deportivas en esferas aparentemente tan diversas de la vida como la política, la industria y el ejército, hecho indicador del eco emocional y simbólico del deporte, y para concluir, las ramificaciones, a nivel nacional e internacional, ‘sociales’ y ‘económicas’, negativas y positivas, de competiciones internacionales como las Olimpiadas y los Mundiales de fútbol. Ninguna actividad ha servido con tanta regularidad de centro de interés y a tanta gente en todo el mundo.”*

Gaur egungo kirol fenomenoak, bere aniztasun ikusgarrian eta dibertsifikatze gero eta handiagoan hartuta, zaila da mugarriz eta horregatik hari begira ipintzeko era emankorrenetako bat izan liteke gizarte sistema irekia bailitzan ulertzen saiatzea, Puig eta Heinemann (1991)-ek egiten duten duten eran. Autore hauek iradokitzen dute *“si se tienen en cuenta como dimensiones constituyentes la forma como se organizan las actividades deportivas, el modo como se legitiman, las motivaciones de los participantes y los impactos que producen, cabe sugerir cuatro modelos configuradores del deporte contemporáneo (...) competitivo, expresivo, instrumental y espectáculo”* (Puig eta Heinemann, 1991:126). Beraz:

Eredu lehiakorrak kirol tradizionala hartuko luke aintzakotzat, mantenduz “una reglamentación estricta y universal para todos los participantes, una uniformidad de las estructuras de valores (...), y una estructura organizativa fundamentada en el club (...). Se orienta en su conjunto a la consecución de una meta y se legitima precisamente por los logros alcanzados o que se pretende alcanzar: una medalla, una victoria, la integración social de los marginados, la educación de la juventud...”.

Eredu adierazkorrak “(...) engloba prácticas escasamente organizadas y sometidas a procesos constantes de innovación y diversificación (...) se fundamenta en el goce por el presente (...), y en muchos casos, se plantea como una compensación frente a la excesiva planificación de la vida cotidiana. En consecuencia, no

se legitima por los resultados a alcanzar, por las realizaciones, sino por la gratificación íntima que cada persona obtiene en su práctica”.

Eredu instrumentalaren kasuan, “se espera obtener gratificación por la respuesta que los demás darán ante el cuerpo que uno o una muestra. (...) la preocupación casi obsesiva por la salud o el envejecimiento es un componente muy importante en las motivaciones de quienes practican”.

Azkenik, ikuskizun ereduak “tiende cada vez más a regirse por las leyes del mercado...) cuenta con una reglamentación estricta (...) y un cuerpo de profesionales que se ocupan de su cumplimiento (...). Es un modelo orientado al entertainment (...) su fomento se justifica por un afán lucrativo (...), por impulsar el desarrollo de una ciudad o un país (...), por reconstruir identidades en áreas periféricas de grandes áreas metropolitanas (...), por ensalzar las virtudes de un Estado (...), o por la combinación de dos o más de estos argumentos”.

Azken finean, hitz gutxitan laburtuz, Puig eta Heinemannen ustez dibertsifikazioa da kirol sistema garaikidearen joera garrantzitsuena, izan ere *“el deporte ha dejado de ser un sistema autónomo y se ha convertido en un sistema abierto con escasa identidad propia y estrechamente conectado a otros sistemas tales como el económico, el educativo, el político...”* (Puig eta Heinemann, 1991:125).

Puig eta Heinemannen sailkapen hau geure eginez eta geure ikerketarako egokituz, hiru multzo handitan elkar genitzake, Aldaz (2010)-k proposatzen duenaren ildoan, kirol fenomenoaren erakundetze maila ezberdinaren arabera:

- *erakundetua*, eredu lehiakorra eta ikuskizunezkoa barneratuko lituzkeena;
- *erdi-erakundetua*, eredu adierazkorraren parekide izango litzatekeena;
- *para-erakundetua*, beste hainbat kirol jarduera eta ariketa fisikoren artean, eredu instrumentalekoak barneratuko lituztekeena.

Bidenabar, eta Aldaz (2010)-ek diotenari jarraiki, ariketa eta kirol jardueren praktika ezberdinen erakundetze maila oso aldakorra izan denez historian zehar, egungo dinamika hau atomo baten irudia erabiliz irudika liteke. Atomoaren nukleoan, kirol jarduera “klasikoenak”, *erakundetuak*, egongo lirerateke bilduta. Eragin mediatiko handiena eta arreta sozial zabalena jasotzen dutenak dira eta haien kirol jarduera tasunaz ez da zalantzarik izaten. Ikuskizunezko eta goi errendimenduzko kirol guztiak, oro har, barneratuko lirerateke multzoan eta gure ikerketagai nagusiak dira.

Atomoaren nukleoaren inguruan grabitatuko lukete, harengandik gero eta aldenduago, erakundetze maila apalagoa duten hainbat ariketa eta kirol jarduerak, bi multzo handitan elkar genitzakeenak. Alde batetik, jarduera *erdi-erakundetuak* egongo lirerateke, nukleotik gertuago kokatuta; era federatua edota jolas-aisialdikoan egiten diren ariketa eta kirol jarduerak izango lirerateke eta, funtsean, joko-arau berberak partekatuko lituzkete ariketa eta kirol jarduera erakundetuekin. Bestalde, eta nukleotik urrunduago, jarduera *para-erakundetuak* edukiko genitzuke, hau da, ariketa eta kirol jarduera sorberriak edota denboraren joanean ezer gutxi erakundetu direnak.

Kirol fenomenoaren izaera moldakor eta birsortzaileak erakartzen du hainbat kirol eredu berri azaleratzen aritzea eta hortik ondorioztatzen da sailkapen ikuspegiak ere berritzen joan beharra dinamika hori ikertu ahal izateko eta hedabideek kirolean duten eragina zehaztu ahal izateko.

Beraz, integrazio prozesuetan kirola eta hedabideen arteko loturaz hitz egiten dugunean, analisiak ikuskizun-kirol mediatikoaren, erakundetuenaren, aurrean ipintzen gaitu, sistema ireki bat dela aintzakotzat hartuz, kirol sistema osoaren gain, eta oro har gizarte osoaren gain, eraginak dituen, zeren

eta Miquel de Moragas Spà dioen bezala *“la responsabilidad de la construcción –(o deconstrucción) de los valores relacionados con el deporte corresponde solidariamente a los nuevos conglomerados formados entre los mass media, (...), los patrocinadores y las organizaciones deportivas”* (Moragas, 2008:1).

Lleixàk (Lleixà eta Soler, 2004:15) dioen bezala, egia izanda ere *“el carácter universal del deporte lo señala como una actividad que sirve de nexo entre culturas (...) no podemos mantener dicha afirmación de forma incondicional”*. Hau da, kirola oso tresna baliagarria da kulturen integrazio soziala sustatzeko, topagune eta elkartasuna ospatzeko abagune bezala hartzen denean. Baina hedabideetan kirola espektakulu bihurtu den adinean, hainbat inguruabar sorrarazi dira Maguire-k (Lleixàk aipatua, in Lleixà eta Soler, 2004:15) dioen bezala, bizikidetzarako gunetzat har dezagun oztopatzen dutenak:

- egungo kirolak oraindik gizonezko tasuna aurkezten du haren baitako boterea gizonezkoen eskuetan baitago;
- kirol boterearen eliteak lortu du beste negozio handietako batzuen ordezkariak bereganatzea (hedabideetako guruak, marketing arduradunak, nazioarteko korporazio erraldoien ordezkariak);
- Mundu mailako kirolaren eraketan eta garapenean ezberdintasunen hazkuntza ikusi ahal izan dugu, nola Mendebaldearen beraren baitan hala gizarte mendebaldar eta ez-mendebaldarren artean.

Hau da, berriro ere, aurrez-aurreko norgehiagoka dialektikoan aurkitzen dira kultura-adierazpen eta bizikidetzarako gune den kirola eta espektakulu izaeraduna, gu-haiek norgehiagoka sustatzen duena. CSD/CISen 2010eko Espainiako kirol ohiturei buruzko inkestak, García Ferrando eta Llópiz Goig-ek argitaratuak (2011), gizarte integrazioarako tresna gisa kirolak dituen gaitasunei buruzko irizpide sozialak ikuskatzea zilegitzen du. Galdekaturiko pertsona gehienek uste dute kirola integrazio tresna bat dela, naziotasun edota kultura ezberdinetako pertsonen hurbilketa errazten duena; zehazki, inkestaturiko pertsonen %81en iritzia da hori (espainiarren %80rena eta atzerritarren %90ena).

Ebazpen hori, haatik, urrun dago Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Agentziak *“Racism, ethnic discrimination and exclusion of migrants and minorities in sport: the situation in the European Union”* (2010) ikerketan aurkeztu zituen emaitzetatik. Europar erakunde honek ondorioztatzen zuen arrazakeriak, xenofobiak eta bestelako intolerantzia mota batzuek europar kirola kutsatzen jarraitzen dutela, baita gutxien erakundeturiko kirolen kasuan eta zaletu mailakoetan ere.

Ondorioak erakusten digu goi mailako kirolaren tratamendu mediatikoan nabarmena dela minoria etnikoen integrazio prozesuei eta parte hartze soziokultural normalizatuei buruzko aipamenik eza eta kirolean bertan ematen den arrazakeria eta xenofobiaren aurkako borroka prozesuen aipamenik eza.

IKERKETA ILDOAREN HELBURU OROKORRA ETA METODOLOGIA

Orain arte aurkeztu dugun testuinguruan, gure ikerketen xede nagusia da kirol prentsan eta orotariko prentsaren kirol orrialdeetan kirol jardueretako minoriei, arrazakeriari, xenofobiari eta bortxakeriari ematen zaien tratamendua aztertzea. Beraz, minoria etnokulturei, integrazio prozesuei edota arrazakeria eta diskriminazio egoerei buruzko gogoeta-bideak eta irudiak aztertu ditugu.

Horretarako, 2008 urteaz geroztik egiten ari garen ikerketa hauetan, kirol garrantzi eta eragin mediatiko handieneko gertakarietan ipini dugu gure arreta, esate baterako, 2008ko ekainean Austrian eta Suitzan ospaturiko futboleko Eurokopan, 2008ko abuztuan Beijingen eginiko Joko Olinpikoetan, edota 2010ean Hegoafrikan jokaturiko futboleko Munduko Kopan, mundu osoan milioika jarraitzaileen arreta bereganatu duten ekitaldiak izan direlako eta prentsa espezializatuak zein orotarikoak luze eta zabal eman duelako haien berri.

Beraz, jarraipen eraginkorra egiteko eta idatzizko hedabideetan aniztasuna, arrazakeria, xenofobia eta indarkeria kirolean nola lantzen diren erakusten duen irudi zehatz eta zintzoa egiteko nahikoa material biltzeko aukera ezin hobeak eskaintzen dituztela uste dugu.

Minoria etnokulturalei buruzko tratamenduan hedabideen gogoeta-bidea aztertzeko SOS Arrazakeria/Mugak-ek eginiko aurreko analisi lanetan erdietsitako esperientzia aplikatuz, hainbat parametro hausnartzen ditugu, esate baterako, prentsan erabiltzen diren gaiak, edukien etnikotasuna, erabilitako terminologia, e.a.

Horretarako, nahitaezkoa iruditzen zaigu Espainiar Estatuko bazter guztietara iritsiko den prentsa espezializatua eta orotarikoaren informazioa jasotzea eta, bide batez, ahalik eta irakurlego anitzenari iritsiko zaizkion ikuspegi ezberdinak aztertu ditugu. Halaber, egunkari horien irakurle kopurua izan da erabili dugun beste irizpideetako bat. Kirol egunkarien kasuan, eta kontuan izan behar da gainera gehien irakurtzen direnak direla, Marca, As eta Mundo Deportivo-ren aldeko hautua egiten dugu. Bestalde, garrantzitsua iruditu zaigu irudia lerratua izan ez dadin argitalpen-enpresa ezberdinen egunkariak, eta ikuspegi ideologiko aski ezberdinetakoak, hautatzea, eta horregatik El País, ABC eta El Mundo-rekin egin dugu lan.

Ikerketa ildo hau osatzen duen azterketa multzoaren gorputza, aipaturiko gertaeratzar horien ospakizunetan indarkeriaz, arrazakeriaz edota integrazioaz jaulkitako informazio emariaren hauta bat izan da, eta horren emaitza nagusiak eskaintzen ditugu ondorengo ataletan.

EMAITZA NAGUSIAK

Egunkarietako testuen multzoaren azterketatik ondorioztatzen den lehen gogoeta deigarria da arrazakeria nabarmenenari buruzko aipamenean hutsaren hurrengo presentzia. Arrazakeria berriari buruzko ikerketetan agertzen den ohiko ebazpen eta ezaugarrietako bat izango litzateke hau.

Hori dela eta, gizarteko gogoeta-bideek eta, oro har eta bereziki, hedabideetakoek, ukatu egiten dute arrazakeria nork bere tasunetakoa duenik. Horrez gain, jarrera eta portaera nabarmen arrazistek erantzun sozial kritikoa jaso dezakete. Horrela bada, estrategia diskurtsiboa arrazakeriaren ukoaz baliatzen da, talde arrotz eta txikiekin kidetzen du, edota jatorri kultural edo erlijiosoan oinarritutako integrazio zailtasunetan babesten diren adierazpenak erabiltzen ditu.

Halaz eta guztiz, arrazakeriaren aipamen esplizituak ageri ez arren, gogoeta-bide berrietan datzan isilpeko arrazakeriak gertakari bortzitzekin duen lotura mailaz hausnarketa egiteko abagunea eskaintzen du. Arrazakeria moderno edo arrazakeria berri hau, sotilagoa denez, hizkeran txertatzen da irizpide arrazista klasikoenen argudioak gaurkotuz eta arrazakeria eta haren agerpenak ukatu edota banalizatzen lagunduz. Gogoeta-bideetan etengabe errepikatzen diren argudio hauek kultura-ezberdintasunen garrantzia eta besteen integrazioaren ezintasuna azpimarratu ohi dute, estereotipoak, aurreiritziak eta baita arrazaren ondoriozko gaitasun fisiko ezberdinei buruzko ikuspegi deterministak erabiltzen dituzten arrazoibideez baliatuz.

Beraz, geure ikerketen emaitzen ondorioz, arrazakeria berria izenpean definitzen dugunaren ondorengo lau gogoetabide-aurpegi hauek zehazten ditugu:

Gogoeta-bide abertzaleak

Gogoeta-bide gerrazaleak

Mestizajeari eta nazionalizazioei buruzko gogoeta-bideak

Hedabideak, gogoeta-bide hauen errepikapen etengabearen bitartez, gatazkarako deiak ereiten ari daitezke, eta aurreiritziak sendotu eta legitimatzen dituzten estereotipoak ufatzen eta, bidenabar, eguneroko arrazakeria “naturalizat” hartzen duten jarrerak elikatzen, esanahiak inposatzea lortzen dutelarik, eta legitimoak bailiran inposatu ere, norberaren indarraren sorburu diren indar harremanak ostenduz eta, bide batez, beren indar hori, sinbolikoa hain zuzen, indar harreman haiei erantsiz eta gehituz (Bourdieu eta Passeron, 1977).

Hori dela-eta, aipatu hiru aurpegi horiez gain, laugarren aurpegi bat ere hizpideratu behar genukeelaka iruditzen zaigu, hain zuzen ere arrazismoari buruzko gogoeta-bide-ezarena. Edo beste era batera esanda, esplizitu egiten diren edo ez diren gogoeta-bideen aurpegia, kirol ikuskizunen inguruan hedabideetan agertzen diren arrazakeria adierazpenekiko tolerantziaren edota, batzuetan, bizikidetzat beraren atalasearekin zerikusia dutenak. Lau aurpegi hauen erakusle izan daitezkeen adibideak ikusiko ditugu jarraian:

Gogoeta-bide abertzaleak

Gogoeta-bide abertzaleei dagokienean, ez dago zalantzarik ikuskizun-kirola lehiaketa eta norgehiagoka sinbolikoa dela eta, ildo horretan, aztertu ditugun nazioarteko futbol txapelketa ezberdinak edota Joko Olinpikoak, herrialdeek beren arteko gatazka eta gerra sinbolikoak sublimatzen dituzteneko gune bilakatzen direla; non *onenak irabaz dezala!* ikuspuntuaren gainetik, *geureek irabaz dezatela!* ideia nagusitzen baita herrialde bakoitzeko jarraitzaileen artean; non abertzaletasuna baita balio nagusia talde-katarsiaren garaia iristen denean. Kirolariak, beren kirol jardunbidearen proiektioaz haratago, milioika aberkideren ordezkariak izango lirake, gizarte oso baten ohorea dutelarik jokoan. Kirolariek ere partekatzen bide dute abertzaletasun hori, Arantxa Sánchez Vicario-k artikulu batean dioenaren arabera: *“subes al podio y sientes bajo las notas de tu himno que no sólo has ganado tú, toda la nación lo ha hecho contigo”* (ABC, 07/08:3).

Kazetarien eldarnioek, abertzaletasun sentipenek eta ekoizkina saldu beharrak harridura ikurrez betetzen dituzte kronikak. Zernahi da zilegi espektakuluaren munduan... soiltasuna izan ezik, José Angel de la Casak Cuatros egiten duenaz Juan Cruz-ek idatzitakoan agertzen den bezala: *“De la Casa hizo de la sobriedad un modo de contar el espectáculo. Era su estilo. Ahora apetece la narración coral, porque a ello lo ha acostumbrado la radio (...) El cuarteto – Carreño, Maldonado, Camacho, Relaño- convirtieron su retransmisión en la expresión de aficionados contando lo que veían. Su sentimiento era el que había en el salón de casa”*. (As, 24/06).

Españolismo porrokatuaren adierazpen hauek nabarmenak dira hainbat izenburutan, adibidez, ondorengo irakurgai hauekin Marca egunkariak (10/06) argitaratzen zuenean: *“Deslumbramos al mundo en ciencia, en economía, en gastronomía, en las artes, en el tenis, en el ciclismo, en baloncesto, en motociclismo, en Fórmula 1... Y ahora también queremos ser los mejores en fútbol”*. Eta amaitzeko, hizkien gorputza handituz idatzitako *“La nueva España”* goiburua, baloia eskuetan eta jaka gorria soinean duen haur baten argazkiarekin, bere selekzioa inoiz ez duela galtzen ikusi adierazten.

Españiar zaletuen artean gogotik errotu diren abestiekin txirikordatu da abertzaletasuna eta abestiekin futboleko Munduko Kopa irabazi izanaren ospakizunetan nabaria da hori: *“Prueba del orgullo recuperado es el canto ‘¡Yo soy español, español, español!’”* (As, 15/07/2010:03); *“¡Yo soy español...!”*; (...) *Camacho, el último patriota. Españoles, la Historia nos espera (...)* *Orgullo en rojo y gualda. (...)* *¡¡¡Dios es español!!!* (As, 12/07/2010:16); *“El honor del país está en juego y debemos salvarlo”* (Marca, 24/06/2010:24); *“Yo soy español, español, español”* (As, 13/07/2010:04); *“¡Vamos España!* (Marca, 22/06/2010:13); *“Centenares de miles de españoles siguieron el partido (...) cantar clásicos como el archipatriótico ‘Yo soy español, español,*

español', la inevitable tonada '¡Que viva España!' o el himno con letra minimalista: 'Lolo, lo-lo, lo-lo-lo...'. (El País, 08/07/2010:47).



MARCA egunkaria 08/06/10

Ezbairik gabekoa da “geu” batean oinarritzen den abertzaletasun sentipena sutzen dela, eta horretarako ezinbestekoa dela “beste” bat, eta zehatzago esanda, lehiakidetzat baino gehiago etsaitzat hartu eta menderatu behar diren “besteak” direla, jokoan dagoena, kirol batean edo bestean gaitasun handiagoak edo eskasagoak edukitzea ez ezik herrialde oso baten aberri ohorea litzatekeelako.

Gogoeta-bide gerrazaleak

Abertzaletasunaren gogoeta-bide horiek lotura estua dute beste gogoeta-bide gerrazale sentsazionalista batzuekin, metafora eta irudiak erabiliz, Garland eta Rowe (1999)-k adierazten duen moduan, kirolaren ikuspegi militarra azaleratzen dutenak eta xenofobia era berriei babes ematen diotenak. Honela, bai futbola eta bai Joko Olimpikoak benetako gatazken ordeztiko moduan agertzen dira eta gizartearen alegia kolektibo bilakatzen dira.

Gogoeta-bide gerrazale ohikoenekiko lehen hurbilketa batek zenbait hitzen erabilpena nabarmentzen digu: “*armas*”; “*estandarte de la selección*”; “*artillero*”; “*furia roja*”; “*el grupo de la muerte*”; “*el ejército de Hiddink*”...Bide batez, hainbat izenburutan aurki ditzakegu “*killer*” edo “*matador*” bezalako esapideak; edota indarkeria adierazten duten irudikapenak irakurtzen ahal ditugu: “*Italia se viste de cordero mientras afila el cuchillo*” (As, 19/06:25). Hizkera horren oldarkortasuna gehitu egiten da txapelketek aurrera egin ahala. Eta, “*tras la batalla llegó el descanso merecido si se ha salido victorioso.*” (Marca, 12/06:14), hots, Errusiari irabazi ondoren gerlariei, “*Los ‘héroes’ de Innsbruck*”, dagokien merezitako atsedena.



AS egunkaria, 08/06/16

Ikuspegi honetan, azpimarragarria da nola agertzen diren, behin baino gehiagotan eta hedabide ezberdinetan, historian zehar eman diren gudaldiei buruzko aipamenak. Bigarren Mundu Gerran Ingalaterra eta Alemaniaren artean jazotakoak gogora ekartzen dituzte, adibidez: *"No son dos equipos, son dos países, dos culturas, dos gigantes obligados a chocar. Basta mirar el siglo XX. A veces se dice que el fútbol es el arte de la guerra por medios deportivos, exageración que suele valer para los partidos entre Inglaterra y Alemania."* (Marca, 24/06/2010:33); *"La rivalidad futbolística entre los dos países comienza de veras tan solo 21 años después de la segunda guerra mundial."* (El País, 27/06/2010:55); *"Hay dos encuentros internacionales que poseen un especial morbo, los duelos de Inglaterra contra Alemania y contra Argentina. Si el fútbol es la guerra por otros medios, un Mundial es una guerra mundial por otros medios. Algunos países prefieren olvidar la última gran guerra, la segunda, la que empezó en 1939 y acabó en 1945. Un par de ellos serían Francia y Alemania. Pero otros no dejan de recordarla, y con regocijo, como por ejemplo los ingleses, para quienes, como Winston Churchill declaró en un famoso discurso, aquel fue "our finest hour", [nuestro momento más grandioso]."* (El País, 26/06/2010:63).

Ez da, beraz, zentzugabea izango esatea, Stempel (2006)-k egiten duen eran, Europan kirolak oro har eta futbola oso bereziki direla naziotasuna eta maskulinitatea esplizitukien eta mitikokien islatzen duten ikuskizun publikoak. Maskulinitate horrek erasokortasuna, lehiakortasuna, nagusitasuna eta indarkeria instrumentala goستن ditu, Jansen (1994)-k adierazten duen moduan. Armada berri hauek herrialdearen ohorea defendatzen dute, jarraitzaileen uholde gorria atzetik daramatzatela, eta alboan kazetariak, hizki potoloenetan, letra larriz eta harridura markak gehiegian erabiliz izenburuan osatzen... eta etsaiaren aurka suhartzen gaituen gerra-oihuan laburbilduz emozioaren zirrara: *"¡a por ellos, oé!"*.

Labur eta azkar esanda, irudi militarren erabilera guztiz ohikoa da besteen aurkako azalpen erasokorrak egiterakoan. Indarkeriaren apologian babes hartuta, gogoeta-bide hauek nahastatzen dituzte abertzaletasuna, ospakizuna eta futbola historia militarrekin, futboleko garaipenek herrialde baten historiaren bikaintasuna erakutsi eta ordezkatzeko balute bezala. Gogoeta-bide militarra futbolari atxikitzen zaio herrialdearen identitatea laburbiltzeko formula gisa. Horrela, 2008ko Eurokupan Espainiak eta Errusiak jokatuako partida, iraganeko porrot mingarriaren mendekurako abagunea izanen zen: *"Todos los*

futbolistas tienen grabado en la mente un campo de batalla marcado con la derrota más dolorosa. Y el 'Waterloo' más reciente de la selección española está a miles de kilómetros del Tírol. Concretamente en Gwangyu, en Corea del Sur". (ABC, 10/06:77).

Mestizajeari eta nazionalizaioei buruzko gogoeta-bideak

Orain arte esandako honen ildoan, Billings eta Eastman (2002)-k diote Olinpiar Jokoen -eta guk erantsiko genuke, maila goreneko nazioarteko futbol txapelketen- kirol osagaia gero eta bigarren mailakoagoa dela lehiaketaren inguruan mamitzen den sentipen nazionalistaren aldean. Jendea bere kirolariez arduratzen da eta gizartearen mikrokosmosaren irudikapen balira bezala begiratzeko joera nagusitzen da. Gu eta besteen arteko dialektika klasikoaren agerpen nabaria dela esan genezake.

Olinpiar Jokoen, 2008ko Eurokoparen eta 2010eko Munduko Koparen ospakizunen inguruan argitaratutako kirol informazioa aztertu ondoren, emaitzek erakusten digute immigrazioari buruzko gogoeta-bideen sorburu nagusia atleta eta kirolari nazionalizatuen presentzia eta esku hartzearen gainean gauzatzen dela.

Azken urte hauetan, hedabideetako idazkietan hizpide dira FIFAk egindako zenbait azterketa, hamaikakoetan herrialde hartzailean jaiotako gutxienez sei jokalaria eduki beharra Europako klubei ezartzeko asmoz. Helburua izango litzateke futbol selekzioetan jokalaria nazionalizatuak ugariegi agertzeko joera saihestea. Neurri honek, langilegoaren zirkulazio libreari buruzko Batasuneko araudia urratzen du, 1990ko hamarraldian *Bosman sententziarekin* sortu zena eta gero *Malaja sententziarekin* berretsi zena, Europar Erkidegoko jokalariren kategoria bat sorrarazten eta europar esparruaren barnekoen eta Erkidegotik kanpokoaren muga handitzen duena.

Lege mailako egitate honi bizkar emanez, gogoeta-bide sozialek oro har eta kazetaritzakoek bereziki, atzerritartzat hartzen dituzte *aberkideak* ez diren guztiak eta desagertzeko arriskuan omen legokeen bertako kultura defendatzeko lubakitaz hartzen du futbola. Bide batez, onetsi eta legitimatu egiten da inbasioaren erretolika eta, Gil (2001:34)-k dioen bezala, etorkinaren irudi sozialaren inguruan eraikitako topikoak errepikatzen dira: kopuruaren arazoa, kultura-ezberdintasunaren hesiarena, nortasun kultural eta nazionalaren defentsarena edota bertakoen langabeziaren arazoa.

Beraz, alde batetik, nazionalizatzearen inguruko arrazoibide ezberdin artean bereiz genitzake migrazio prozesuen eta globalizazioaren ondorio naturaltzat ikusten dituztenak, hots, naturaltasunez hartu beharreko egitateak. Argudio ildo honetan defendatzen da kirolariek, gainerako jendeak bezainbesteko eskubidea dutela sorterrian dutenaren aurrean beren bizi-kalitatea hobetzen ahalegintzeko. Saïd Aouita, marokoar lasterkari historikoak errealtate hau honela argudiatzen du: *"herrialde bateko bederatzigarren edo hamargarren atletak ez du aukerarik Joko Olinpikoetara edota Munduko Txapelketara joateko, ezta dirua irabazteko ere. Gizalegezkoa da beste herrialde batzuetan bizibidea aurkitu ahal izatea. Eta ez dut uste arazo denik"*. [<http://lacomunidad.elpais.com/evelio35/2008/8/14/http-blas-atletismoyalgoms-blogspot-com-2008-08-1380-si-sale>]

Aitzitik, nazionalizazio prozesua dominak erosiz emaitzak apaintzeko trikimailu hutsarekin kidetzen duen gogoeta-bide ohikoa aurki dezakegu. Horretarako, beren buruen alokatzaile izango liratekeen eta aldiz beren selekzio berriaren koloreak benetan sentitzen dituzten nazionalizatuen arteko bereizketari buruzko gogoeta-bideak berreskuratzen dira. Gogoeta-bide hori osatzen da egoera horrek kirolari espainiarrei eta selekzioaren koloreak benetan sentitzen dituzten atzerritarrei erakarriko lieken balizko injustziarekin. Beraz, gogoeta-bide hauek *"geurea defendatu beharra"* azpimarratu ohi dute, hemengo futbol zelaietan agertzen diren atzerritarren *"gehiegizko kopurua"*, *"etorrera kontrolaezina"* eta *"ugaritasun neurrigabea"* bezalako metaforez baliatuz. *"Nortasun nazionalaren"* arrisku egoerari heltzen dio gogoeta-bide horrek, bertako futbol taldeen harrobietako jokalarigaien garapena arriskuan egon daitekeelakoan eta, bide batez, jokalaria horien eta etorkizuneko selekzioen maila gainbehera etor litekeelakoan.

Edonola ere, gero eta mestizoagoa eta kulturantzagoa den gizarteak kirolaren munduan duen “islak” kazetari-interpretazioak sorrarazten jarraitzen du, eta ikuspegi hauek, normalizatzailleak izan ordez, “geurea” eta “kanpoko arriskuak” aurrez-aurre ipintzen dituen gogoeta-bidean aurrera egin nahi dutela ematen du.

Arrazakeriari buruzko gogoeta-bide-ekak

Kirol hizkerak aztertuz mundu mailan eginiko ikerketa ezberdinen arabera, erreferente xenofobo eta diskriminatzaileen sortzaile direla esan litekeen gogoeta-bide hauek ikusi ondoren, laugarren atal honetan bilbatzen ditugu hainbat kazetari-lan, era zuzenagoan edo zeharkakoagoan, maila edo gradu ezberdinetan diskriminazioa, xenofobia edo arrazakeriarekin zerikusia duten gogoeta-bideak barneratzen dituztenak, hala nola gogoeta-bide-eza dei genezakeena agertzen dutenak, egungo ikuskizun-kirolaren fenomenoan, beronen adierazpenetako edozeinetan, errotuta dagoen tolerantzia atalasea hizpideratzen dutenak.

Aztertu ditugun kirol ekitalditzar horien inguruan argitaraturiko kazetari-lanen azterketatik eratortzen den lehen gogoeta da arrazakeriarik nabarmenenari egindako aipamenen urritasuna deigarria egiten dela. Arrazakeria berriari buruzko ikerketetan usu agertzen den ondorioa eta ezaugarria da hau.

Gizarteko gogoeta-bideek, oro har, eta bereziki hedabideetakoek, ukatu egiten dute arrazakeria nork bere tasunetakoa duenik. Horrez gain, jarrera eta portaera nabarmen arrazistek erantzun sozial kritikoa jaso dezakete. Horrela bada, estrategia diskurtsiboa arrazakeriaren ukoaz baliatzen da, talde arrotz eta txikiakin kidetzen du, edota jatorri kultural edo erlijiosoan oinarritutako integrazio zailtasunetan babesten diren adierazpenak erabiltzen ditu.

Arrazakeria, hizkera eta txantxa arrazistak gutxieteko joeran erori dira hedabideak, futbolak berezkoak dituen emozioen adierazpen hutsak balira bezala agerraraziz. Formula honek zilegitzen du nork bere arrazakeria ukatzea eta horrelako ekintzak norbanakoen “ustekabeko ateraldiak” edota gehiengo errugabe baten “flakia uneak” bihurtzea. Müller et al. (2007)-rentzat, naturaltasunezko aurkezpen honen ondorioa litzateke “jokoaren osagaietako bat” dela onartu beharra. Inork ez du bere burua arrazista ikusten, “jarraitzaile arrazisten taldetxo bakanak” liriateke soilik arrazistak. Gu, ez noski! Bortitzak eta arrazistak besteak dira, eta hedabideek ez dute onartzen futbolaren kulturako estereotipoen eta arrazakeriaren biderketan jokatzeko duten papera, Burdsey (2004b)-k adierazten duen bezala.



Olinpiar Jokoetan, arrazakeriaren inguruko arreta erakarri zuen edukia, Espainiako saskibaloiko selekzioaren publizitate argazki bat izan zen non jokalaria betazalak arrailtzen agertzen baitziren; nazioarteko hainbat hedabidek arrazistatzen jo zuten delako argazkia. As egunkarian (15/08:05) saskibaloiko selekzioaren babesle ofiziala zen SEURen publizitatea agertzen zen; testuak ez zuen inolako aipamenik egiten keinuaz. Hiru egun geroago, As egunkari berebean (18/08:07), SEURen publizitatea agertzen zen berriro, oso antzeko argazkiarekin, baina begiekiko keinurik gabe jada.

Litekeena da, McCarthy et al. (2003)-k arrazakeria berriaz ematen duen definizioaren arabera, jokalarien keinua gutxiesteko egindako gogoeta-bideak ekintza bera baino zorrottasun gutxiagokoak izatea.

The Guardian egunkari ingelesak hala zioen bere orrialdeetan: *“No offence was intended by the advert, but whether the Chinese see it that way is a different matter and it is likely to provoke more criticism at a delicate time for Spanish sport (...) No one involved in the advert appears to have considered it inappropriate nor contemplated the manner in which it could be interpreted in China and elsewhere”*. Polemika honek 2016ko hiri olinpikoa izateko Madrilen hautagaitzarako erakarrezakeenaz espekulatzen zuen jarraian informazioaren testuak, eta gogorarazten zituen *The Guardian*ek iraganean espainiarrekin zerikusia izandako gatazka arrazistak: Ingalaterrako selekzioan jokatzeko futbolarik beltzei eginiko uhukaldian 2004ko azaroan Madrildako Santiago Bernabeu futbol zelaian Espainiako selekzioaren aurka jokatu zuten partidari; Lewis Hamilton gidariak Montmelóko zirkuitoan jasan zituen irainak 2008ko Mundiala hasi aurreko entrenaldi batzuetan; edota Luis Aragonés entrenatzaileak, José Antonio Reyes futbolarik ijitoarekin izandako gorabehera batean Thierry Henry jokalaria *“negro de mierda”* deitu zioneko.

Halere, hedabideen joera orokorra, ez dakigu nahitara edo nahi gabe, joko zelaietan ematen diren adierazpen xenofobo eta arrazistetako asko ezkutatzea da. Izan ere, frogatu ahal izan dugun bezala, Espainiako arrazakeriari buruzko berri asko espainiar kazetaritzaren agendan soilik agertzen dira beste herrialde batzuetan Espainiako arrazakeriaz argitaratzen diren albisteetan aurrean hedabideek espainiar kirolgintzaren defentsari ekiten dionean, berriro ere *“geurearen”* aldeko defentsa modukoan ipinita.

Arazakeriari buruzko gogoeta-bide-ezaren ideiarekin topo eginarazten digu egitate honek, edo beste era batera esanda, hedabideek arrazakeria berriaren fenomenoarekiko duten tolerantzia atalasearen eta hari buruz, gure ustez zuzenki, dagokien betekizunari erantzuteko egin behar dutenaren inguruko gogoetarekin.

2011n egin zen azterketa garaian interes bereziko abagunea suertatu zen gogoeta-bide-ezaren ingurumen honetan Jonás Ramalho-ren kasu bitarteko: *“...el primer jugador de raza negra del Athletic”* omen zelako (Marca.com, 2011/11/20). Ramón Trecet kazetariak Marca webgunean duen 13T blogean, ihardesten zuen, kazetarien munduari bai baita gizarte osoari ere begiratu, ea *“¿es noticia que sea noticia?”*.

Baiezkoarekin ala ezezkoarekin erantzun galderari, ez dago zalantzarik gertaera berberaren aurrean gogoeta-bide eta interpretazio aski ezberdinak azaleratzen direla, hasi gertaera normaltasun baten barnean aztertu nahi dutenengan eta haren salbuespeneko tasuna azpimarratu nahi dutenen beste muturrean amaituz, biek ala biek argudio berbera, hau da, jokalaria azalaren kolorea, prisma kontrajarrietatik epaigai dutelarik.

Albiste honek, berezia eta zehatza izan arren, ika-mika gogorra sortu zuen interneteko irakurleen iruzkinetan, eta agerian utzi zuen zabalkunde handiko egunkari baten ganoragabekeria hizkeraren

erabilpenean, hainbat iruzkingileek aurpegiratu zioten moduan, nahiz eta gehiago izan ziren jokabideari garrantzia kentzen ziotenak.

ONDORIOAK

Laburbilduz, Ramon Trecetek egiten zuen galdera, “albiste al da albiste izatea?”, berreskura genezake eta ikuskizun-kirolak integrazioarekin duen harremanaren inguruko kazetaritza tratamenduan agertzen den arrazakeria berriaren fenomenorantz bidera dezakegu. Gure ustez, argi eta garbi dagoena da kirolak, hedabideek eta integrazioak osatzen duten hirutasuna biziki gatazkatsua dela, eta ezagutzera eman ditugun adibideek eta urte hauetan bilbatu ahal izan dugun esperientzia guztiak hausnarketan sakontzera bultzatzen gaituzte.

Durán eta Jiménez (2006)-k dioen eran, Europako herrialderik gehienek futbolearen ematen den arrazakeriari aurrea hartzean ipini dute beren egitasmoen helburua, eta ez horrenbeste futbolaren bitartez arrazakeriari aurrea hartzean.

Lan ildo honetan, hiru jarraibide posible kausitzen dituzte egileek. Alde batetik, zelaian eta harmailetan jokaera egokiak sustatuko dituzten proiektuak; bigarrenik, kontzientzia harrarazteko proiektuak, informazioa zabalduz; eta, azkenik, lagungarri ezkor edo zigorren bitartez eta lagungarri baikor edo sarien bitartez sustatuko liratekeen proiektuak. Azken esparru honetan lukete hedabideek eginkizun funtsezkoa, indarkeriazko gertaerei arreta berezia eskainiz eta ez horrenbeste prebentzio neurriei.

Espainiako kirolgintzako indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako 19/2007 Legeak, Uztailaren 11koak, esaten du gatazkari eta indarkeriari buruzko albisteek “*tienen a menudo una gran repercusión en los medios de comunicación que, en ocasiones, repiten hasta la saciedad los incidentes violentos*”. Gure ikerketaren emaitzek, ordea, alderantzizkoa erakusten digute, hau da, indarkeriazko gertakariei hedabideetan eskaintzen zaien arreta oso eskasa dela eta gehienetan atzerriko zaletuen bortxakeria arrazistari buruzkoa. Eta erantzun instituzionalaren jarraipena “iskanbilak izan daitezkeela” aurreikusten diren partidetarako hartzen diren polizia eta segurtasun neurrien berri ematera mugatzen dela.

Dudarik gabe, indarkeria arrazistak zaildu egiten ditu integrazio prozesuak, eta gatazka, abertzaletasuna eta bestearen aurkako jazargoa suspertzen duten gogoeta-bide gerrazaleari atxikita dauden jarreretatik soilik kirola aurkezteak urrundu egiten du kirola gizarte sarkariagoa sustatzetik eta intolerantzia, arrazakeria eta indarkeriaren aurkako borrokan lanabes baliagarria izatetik.

Azkenik, iruditzen zaigu esku artean dugun lan ildo honek sakondu beharreko egitatea dela kirol ikuskizunean inplikaturik dauden subjektuei, eta batez ere hedabideei, kirolariei eta eragin mediatikoa duten taldeei, baina baita ere zaletuei eta erakunde politikoei, subjektu aktiboen tasuna aitortu behar zaigula, hau da, eragile eta erantzunkide izan behar dugula kirolaren ikuskizun tasunaren birsortze baten bitartez gizalegezko balioak sustatzeko orduan. Hor har dezake kirol ikuskizunarekin harreman estu edo lasaiagoa duen gutako bakoitzak bere erantzunkidetasuna kirolaren ikuskizun tasun hori berregiteko.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko Eskubideetarako Europar Batasunaren Agentzia EU (2010). *Racism, ethnic discrimination and exclusion of migrants and minorities in sport: the situation in the European Union*. 2011712702an berreskuratua helbide honetan:

http://fra.europa.eu/fraWebsite/research/publications/publications_per_year/2010/pub-racism-in-sport_en.htm

- Aldaz, Juan. (2010). *La Práctica de Actividad Física y Deportiva (PAFYD) de la población adulta de Gipuzkoa como Hábito Líquido*. Leioa/España: UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- Billings, Andrew C. eta Eastman, Susan Tyler. (2002). Selective representation of gender, ethnicity, and nationality in american television coverage of the 2000 summer Olympics. *International Review for the Sociology of Sport* 37/(3-4), 351-370 orr.
- Bourdieu, Pierre eta Passeron, Jean Claude. (1977). *La reproducción: elementos para una teoría del sistema de enseñanza*. Bartzelona/España: Laia.
- Coalter, Fred. (2007). *A wider social role for sport. Who's keeping the score?*. New York/AEB: Routledge.
- Europar Erkidegoen Batzordea (2007). *Libro Blanco sobre el Deporte*. 2011/12/01ean berreskuratua helbide honetan http://ec.europa.eu/sport/white-paper/doc/wp_on_sport_es.pdf
- De Moragas, Miquel. (2008). *Comunicación y deporte en la era digital. Sinergias, contradicciones y responsabilidades educativas*. 2011/12/03an berreskuratua helbide honetan http://portalcomunicacion.com/both/temas/mp_deporte_mdm.pdf
- Dunning, Eric. (2003) *El fenómeno deportivo, Estudios sociológicos en torno al deporte, la violencia y la civilización*. Bartzelona/España: Paidotribo.
- Durán, Javier eta Jiménez, Pedro Jesús. (2006). Fútbol y racismo: un problema científico y social. *Revista Internacional de Ciencias del Deporte*, V. 2, Nº 3, 68-94 orr.
- Garland, Jon eta Rowe, Mike. (1999) War Minus the Shooting? Jingoism, the English Press, and Euro 96. *Journal of Sport and Social Issues*, 23, 80-9 orr.5
- García Ferrando, Manuel eta Llópiz, Ramón. (2011). *Encuesta sobre los hábitos deportivos en España 2010. Ideal democrático y bienestar personal*. Madril/España: CSD/CIS.
- Gil, Sandra. (2001) Identidad, Fútbol y Fronteras. Acerca de la sentencia Bosman. *Mugak*, 16/3, 31-37 orr.
- Heinemann, Klaus. (2002). Deporte para Inmigrantes, ¿Instrumento de Integración? *Apunts, Educación física y deportes*, 68, 24-35 orr.
- Jansen, Sue Curry. (1994). The sport/war metaphor: Hegemonic masculinity, the Persian Gulf War and the new world order. *Sociology of Sport Journal*, 11, 1-17.
- Lleixá, Teresa eta Soler, Susanna. (2004). *Actividad física y deporte en sociedades multiculturales. ¿Integración o segregación?* Bartzelona/España: ICE-UB.
- McCarthy, Daniel J., Jones, Robin L. eta Potrac, Paul A. (2003). Constructing images and interpreting realities the case of the black soccer player on television. *International Review for the Sociology of Sport*, 38, 217-237 orr.
- Müller, Floris, Van Zoonen, Liesbet eta de Roode, Laurens (2007). Accidental Racists: Expressions and Experiences of Racism in Local Amsterdam Soccer. *Soccer and Society*, 8 (2/3), 335-350 orr.
- Puig, Nuria eta Heinemann, Klaus. (1991). El deporte en la perspectiva del año 2000. *Papers*, 38, 123-141 orr.
- Stempel, Carl. (2006). Televised Sports, Masculinist Moral Capital, and Support for the U.S. Invasion of Iraq. *Journal of Sport and Social Issues*, 30, 79-106 orr.

